



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2021eko agorrilaren 3ko bilkura

Bi mila eta hogeita batgarren urtean eta 2021eko agorrilaren hiruan, zortzi eta erdietan, Herri honetako Herriko Kontseilua, erregularitasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, M. GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, JORAJURIA Ramuntxo

Bilkurako idazkari izendatua izan da : Mme CHAMALBIDE Corinne

Deialdiaren eguna : 2021eko uztailaren 30a

Afitxatze eguna : 2021eko uztailaren 30a

5.ERABAKIA : GRADU ATZINATZEAREN KARI LANPOSTU SORTZEA

Nomenklatura : 4.1.1

Lan postuen eta segurtatu misioen bilakaera konduan harturik, Auzapez Jaunak, Herriko Kontseiluari proposatzen du ondoko lan postuen sortzea :

- 1. mailako animatzaile nagusia Ortzaizeko haurtzaindegian harrera lana segurtatzeko,
- 1. mailako administratibo laguntzailea, herriko posta agentzian harrera lana segurtatzeko,
- 1. mailako teknikari nagusia, kantinara haurren laguntzeko, haurtzaindegian haurren harrera egiteko eta herriko gelen mantentze lanen egiteko misioak segurtatzeko.

Auzapezaren esplikapen gehigarriak entzun ondoren eta erabaki ondoan, Herriko Kontseiluak

ERABAKITZEN du, 2021eko irailaren 1etik goiti, sortzea :

- denbora ez osoko 1. mailako animatzaile nagusi lan postu permanentea (18,5 oren asteka),
- denbora ez osoko 1. mailako administratibo laguntzaile lan postu permanentea (15 oren asteka),
- denbora ez osoko 1. mailako teknikari nagusi laguntzaile lan postu permanentea (32,94 oren asteka),

ZEHAZTEN du aurrekonduan beharrezko kredituak aurreikusiak direla.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 13

Balizko boz kopurua : 13

ALDE : 13

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineko egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2021eko agorrilaren 3an
Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2021/09/14an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2021/09/14an.

